



GAL ez dela talde terrorista ezta Estatuari lotutakoa dio epaiak

Amedo eta Dominguez poliziei 108 urte ezarri diete, baina ez diete hilketarik leporatu

Atzo kaleratu zen 'Amedo aferako' epaiak 108 urteko gartzela zigorra ezarri die Amedo eta Dominguezi. Halere, epaiak ez du GAL talde terroristatzat hartzen, eta frogatueztatzat jotzen du Estatuarekin zerekusirik zuenik. Gainera, prozesatua Garcia Goenaren hilketan errugabea dela dio.

Z. ZAMAKOLA / BILBO

Epaiak 'Batxoki' eta 'La Consolation' tabernen aurkako atentatuen eragiletzat jo ditu poliziak, eta bertan zauritutako sei pertsona bakoitzeko 17 urte, 4 hilabete eta egun bateko zigorra ezarri zien, huts egindako sei hilketa ahalegin leporatuta. Horrez gain, nortasun agiriak faltsutzeagatik ere zigortu dituzte.

Fiskalak egindako eskakizunak ia bete betean segituta, atzo irakurri zen epaiaren testuak bi GALkideak errugabetu egin zituen Garcia Goenaren hilketatik, eskakizunetan zegoen burututako hilketa bakarra. Epaimahiak Inmaculada Gomez Amedoren emaztegai ohiaren «ausardia» goratu bazuen ere, ez zuen berak esandakoa kontutan hartu, horren deklarazioak bait ziren salaketaren oinarri nagusia.

Gainera, epaitegiaren iritzian GALek ez du talde terrorista osatzen, eta talde armatuko partaide izatea leporatu ordez, legez kanpoko elkarreko partaide izatea egotzi zien Amedo eta Dominguezi.


Ildo beretik, epaiak agertzen du GAL ez zela «Estatuko aparatuetan sartutako botere guinea», eta hortaz Espainiako Gobernuaren zehar harko erantzule izatetik errugabetu zuen.

Epaiaren edukinak jasotzen duenez, ezin da zehaztu zeintzu ziren GALen ezaugarriak eta zein bide erabiltzen zituen finantzatzeko.

Kontutan izanik Espainiako Kode Penalak gehienez 30 urteko gartzela zigorra onartzen duela eta eman daitzekeen murrizketak direla eta, zigor horrekin bi poliziek 15 urte inguru eman beharko dute gartzelan, jokatibide ona eta aldeko txostenak jasoz gero.

OINARRIA Frantziar eta MERTZENARIEN Portugalen preso ADIERAZPENAK dauden GALEko mertzenariak egindako adierazpenak dira epaimahaiak Amedo eta Dominguez GALkideak zigortzeko erabili dituen karguko frogarik garrantzitsuenetakoak.

Hain zuzen ere, Paulo Jose Figueiredo Fontes mertzenari portugaldarrak Frantziako Poliziari egindako adierazpenak izan ziren Amedoren-gana heldu zen bidearen lehen urra-



Jose Amedo eta Michel Dominguez poliziak epaiaren irakurketan egon zirene.

EFE

tsa eman erazi zutenak.

Mertzenarien deklarazioak behin eta berriro ipini zituen zalantzan Casado Defentsako abokatuak, eta bere iritzian nahiko berma judizialik gabe hartu zirela argudiatuta, epaimahaiari kontutan ez hartzeko eskatu zion.

Halere, epaiaren testuak gogorazi egiten du halako frogak kontutan hartzeko modukoak direla, instrukzioan zehar hartuta egonik ahozko epaiketara eroatea posible ez denean. Halakoetan 'aurreosatutako frogak' balorea hartzen dute.

Epaimahiak azpimarratu egin zuen Frantziara eta Portugalera joan ziren erreguzko batzordeek «berebiziko balioa» dutela, «beraueetan daudelako prozesatuei egotzen zaizkien ekintzekin harreman zuzena dutenen adierazpenak».

Hirurogeitalau egun iragan dira joan zen uztailaren 17an Amedo eta Dominguez epaitu zituen ahozko epaiketa amaitu zenetik.

Epaimahai osatzen duten Jimenez Alfaro epaile-lehendakariak, Jose Antonio Marañon Chavarrik eta Agustin Lobejon Martinezek joan zen uztailaren 29an erabakia zuten epaia, baina Lobejon idazlariak abuztu osoa eman zuen erabakiaren testua idazten.

Euskal alderdiek ez dute ontzat hartu bi polizien kontra emandako epaia

DONOSTIA

Joseba Azkarraga, Eusko Alkartasunako Madriliko Kongresuan diputatuak, «Entzutegi Nazionalak Gobernuaren aginduak fideltasun osoz bete dituela» adierazi zuen atzo, Jose Amedo eta Michel Dominguez poliziak epaitu dituen Entzutegiaren lana baloratzekoan. Azkarragak esan zuen epaiak «ez duela ezer argitzen» eta aipatu bi poliziak «estatuaren tresnak» direla gaineratu zuen. «Estatuak eta Gobernuak Amedo eta Dominguez poliziak erabili ditu» ziurtatu zuen.

Sententziak ez du GAL talde terrorista moduan aipatzen eta hori kezkarria da Azkarragarentzat. «Sententziaren erabakiaz Estatuaren erantzukizuna ezabatzen da» ziurtatu zuen. Hamazazpi urte, lau hilabete eta egun bateko zigorra «beste terrorista batzuei ezarritakoarekin ez dator bat» Azkarragaren iritziz. «Tratu desberdina eman diete» zehaztu zuen.

Eusko Alkartasunako diputatuak, epaiarekin ados ez dagoenez, Estatuaren erantzukizunak eskatzen jarraituko duela esan zuen. «Sententzia honekin prozesua ez da itxi» azpimarratu zuen.

HB: HBk atzo adierazi zuen Amedo eta Dominguez zigortu dituen epaiaren helburu bakarra «GALen hilketen benetako errudunak eta eragile politikoak errugabetea» izan dela, «erantzuleetako bi» zigortu arren. Bi poliziak «errua botatzeko txontxongilo» bezala erabili zituztela gaineratu zuen.

Atzo igorritako ohar baten bidez HBk Argentinan torturak egin zituzten militarrei barkamena eman zien legearekin parekatu zuen epaiaren edukina eta adierazi zuen «GAL planifikatu, diruz hornitu eta objetiboak zehaztu zituztenak beste gurutzada odoltsuei ekiteko libre» utzi dituztela.

«Guztiz lotsagarria da Epaitegiak

Hiru orduz atzeratu zen prozesatuak ez zirelako agertu

MADRID

Epaiaren irakurketa ia hiru orduko atzerapenaz hasi zen, goizeko hamarretan hasi beharrean, eguerdiko ordu bata t'erdiak baino lehenxeago egin bait zuten. Arrazoia, Amedo eta Dominguez poliziak bertan ez agertzea.

Efe agentziak gartzeletako iturriak aipatuta kaleratu zuenez, poliziak epaiaren irakurketa entzuteko garaiz ez iristeko arrazoia epaimahiak Amedo eta Dominguez Entzutegi Nazionalera eramateko eskatu zuen «ezohizko» bidea izan zen.

Entzutegi Nazionalak Guadalajarako gartzelari eskatu zion Polizia Judizialen eskuetan uztea prozesatutako polizien garraioa, normalean garraiatzeko eskakizuna baino ez denean egiten, gero gartzelak berak erabakitzeko nola egin.

Espetxeko zuzendariak 10etarako —Epaimahaiako lehendakariak esandako ordua— dena prestatua bazuen ere, ez zen polizia judizialik agertu eta azkenean hiru orduko atzerapenaz goardia zibilek egin behar izan zuten trasladoa, ohi den bezala.

Horrez gain, epaimahaiako lehendakariak Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari eskatu zion epaia 'filtratu' izana iker dezala, «ekar ditzakeen erantzukizunak argitze».

Atzo Madrilko egunkari epaiaren testua kaleratu zuen, irakurketa publikoa eman aurretik ere.

Estatu alderdi politikoei dagokionez, Izquierda Unidak ez zuen epaia onartu. Antonio Romero, alderdi honetako diputatuak esan zuenez, «epaiak ez du GALEko kideen terrorismoaren historia argitzen».

Amedo eta Dominguez ez zigortzea talde armatuko partaideak izateagatik, gainera GAL Estatuko boteretan txertatutako taldea ez dela frogatutzat hartzeko», salatu zuen HBk.

Joseba Egibar, Euzko Alderdi Jeltzaleko bozeramaleak ere ez zuen ontzat jo Jose Amedo eta Michel Dominguez polizien kontrako epaia. «Eskubidezko Estatu batentzat battersa on ez den itzalak ditu» adierazi zuen.

Epaia ez dela EAJk nahi zuena esan zuen, bere ustez, «talde armatuko kide izateagatik zigortu behar zituztelako». Egibarren esanetan, «Amedo-GAL binomioa zaila da banatzen».

Amnistiaaren Aldeko Batzordeak azpimarratu egin zuten Espainiako Gobernuak, Estatuko Fiskalak eta epaimahaiak berak bat egin zutela «gera zikinaren gaian benetan garrantzitsua dena desbideratzeko, hau da, Euskal Herriko aldarrikapen aurka beste trenea zapaltzaileetako bat bezala erabiltzen dutela».